



EBALUAZIO KUALITATIBOA

2015-2016. ikasturtea

(KONTROL LAGINAREN EMAITZEN TXOSTENA)

Galtzagorri Elkarte
2016ko abendua



AURKIBIDEA

	Orria
• AURKEZPENA	2
• EBALUAZIO KUALITATIBOAREN HELBURUA	2
• EBALUAZIO KUALITATIBOAREN ALDAGAIEN AUKERAKETAREN JUSTIFIKAZIOA	3
• EBALUAZIO KUALITATIBOAREN METODOLOGIA	4
• KONTROL LAGINA	4
• EBALUAZIOAREN EMAITZAK	5
• IRUDIKATZEKO AHALMENA	6
6.1. Test eta frogen deskribapena	6
6.2. Test eta frogen emaitzak	7
• ARRETA MATENTZEKO AHALMENA	9
7.1. Test eta frogen deskribapena	9
7.2. Test eta frogen emaitzak	10
• EMAITZEN INTERPRETAZIOA	11
8.1. Irudikatzeko ahalmenari dagokionez	11
8.2. Arreta mantentzeko ahalmenari dagokionez	11
• IKERKETA KONPARATIBOA	12

1. AURKEZPENA

BULARRETIK MINTZORA egitasmoa kanpaina sistematizatu bat izateko bokazioz jaiotzen zen 2008an. Haur txikien guraso eta hezitzaileei zuzenduta dago eta bere helburu nagusia da 0-8 urte bitarteko haurren irakurketa ohiturak sustatzea gurasoekin eta haien hezitzaileekin, beren ingurune naturalean: etxean, eskolan eta liburutegian, hain zuzen.

Egoitza hauetan, giro irakurle bat sortzeko bideak jorratu nahi ditu beraz Galtzagorri modu natural batean irakurtzeko, kontatzeko eta entzuteko ohitura sustatuz.

Pausoz pauso, zazpi urte hauetan, kanpainaren eragina ebaluatzen joan gara. 2008tik hona BMn parte hartzen duten haurren gurasoek 2.947 galdekizun erantzun dituzte eta erantzun horiek jaso, prozesatu eta ebaluatu ditu ondoren Galtzagorri Elkarteak. Banatutako guztiaren batez besteko %45a jaso dugu gurasoengandik bueltan. 2014. urtean, **Bularretik Mintzora hasi zenetik, ebaluazio emaitza kuantitatibo hoberenak lortu genituen**: Bukaerako ebaluazioan kontuan izan ziren irakurzaletasuna definitzen duten **17 adierazleetatik 12tan hobekuntza nabarmena edo handia izan baitzen**. Beraz, emaitza kuantitatiboa horiek frogatu dute Bularretik Mintzora kanpainak irakurketa ohiturak finkatzen dituela egitasmo honen baitako ekintzak burutzen diren familietako haurren.

Horregatik, egitasmoaren eraginkortasuna egiaztatzeko, 2016. ikasturtean ebaluazio kualitatiboarekin hasi gara.

2. EBALUAZIO KUALITATIBOAREN HELBURUA

Ebaluazio kualitatiboaren helburu orokorra Bularretik Mintzora egitasmoaren jarduera sistematikoek (eskolan, familian eta liburutegian) **haurren garapen emozional eta intelektualaren arlo zehatz batzuetan zer nolako eragina izan duten neurtzea da**; hau da, zein neurriraino hobetzen dituen aztertu nahi dugu.



3. EBALUAZIO KUALITATIBOAREN ALDAGAIEN AUKERAKETAREN JUSTIFIKAZIOA

Haurren garapen psikoafektiboan haur literaturak positiboki eragiten duen arloen artean, **introspektzioa** areagotzearena legoke. Hau da, haurrak bere baitan “sartzeko ahalmena” edukitzea eta areagotzea; “auto-aitorpen psikologikoaz” eta emozionalaz jabetzea. Azken finean, bere sentikortasuna, identifikazio emozionala eta enpatia garatzea.

Zenbait ikerketek dioten bezala, introspektziorako ahalmen hori “ebaluatzeko” modu ezberdinak daude. Horien artean, haurrak duen irudikatzeko ahalmena (irudi mentalak sortzeko ahalmena) arakatzea da bat, irudiak horiek, besteak beste, norberaren bizipen afektiboetatik sortzen direlako.

Introspektziorako ahalmenaren beste “adierazleetako” bat da arreta mantentzeko ahalmena. Haurrak “bere baitan”, “adi” egoteko ahalmena -kuantitatiboki (arretaz zenbat denbora egon daitekeen) zein kualitatiboki (arretaren kalitatea, kontzientzia)- zenbat eta handiago izan, orduan eta introspektziorako ahalmen hobea.

Argudio horiek abiapuntutzat hartuz, haurrengan bi arlo horien garapena ebaluatzea erabaki dugu BM lantaldean.

4. EBALUAZIO KUALITATIBOAREN METODOLOGIA

Aipatu bi arlo horiek ebaluatzeko, haur bakoitzari, bakarkako saiotan, ondoren zehazten diren froga edo testak pasa zaizkie:

- **Irudikatzeko ahalmena ebaluatzeko**
 - Testak / Frogak:
 - 1. Haur Sormenaren Testa. (TIC. Test de Creatividad Infantil)**
 - 2. Animaliak irudikatu. (“Imagina Animales” ipuina);**
Xosé Ballesteros / Juan Vidaurre. Kalandraka, 2010
 - 3. Ipuinaren kontaketa irudikatu**

- **Arreta mantentzeko ahalmena ebaluatzeko**
 - Testak:
 - 1. Arreta bisualaren Magallanes Eskala. (EMAV1. Escala Magallanes de Atención Visual)**
 - 2. Entzumen-oroimena eta arreta. (Digitos –WISC IV-. Atención y memoria auditiva)**

5. KONTROL LAGINA

Bularretik Mintzora kanpainaren barruan dauden 21 herrietako haurren garapen emozional eta intelektualean egitasmoaren jarduera sistematikoek **zer** nolako eragina izan duten ezagutzeko, kontrol lagin bat behar zen lehenengo, alegia, Bularretik Mintzora egitasmoaren ekimenik jaso ez duen haur talde bat. Gerora, kontrol lagin honen emaitzak konparatuko dira Bularretik Mintzoraren ekimenak sistematikoki burutu dituen beste haur talde batekin.

Kontrol lagin hau osatzeko Donostiako Biteri eskolako haur talde bat aukeratu da. Lagina **5 urteko 32 hurrez** osatuta dago. Talde honek Bularretik Mintzorako egitarauarekin inolako kontakturik ez du izan.

Haur bakoitzari, aipatutako frogak banan bana egin zaizkio. Bakoitzarekin 50 minutu inguruko saioak egin dira. Ebaluazioa 2016ko ekainean egin da.



EBALUAKETAREN EMAITZAK

6. IRUDIKATZEKO AHALMENA

6.1. Test eta frogen deskribapena

Haurren irudikatze ahalmena ebaluatzeko, 3 test / froga erabili dira:

1. **Haur Sormenaren Testa.** (*TIC. Test de Creatividad Infantil*).

Test honen bidez, haurrak marrazki bat sortu edo eraiki behar du, ezagutzen dituen 28 marrazkien pegatinak kontuan hartuz. Hauetatik, haurrak, nahi dituenak aukeratzeko ditu.

Hasieran, estimuluak bisualak dira eta horiekin sortzen duen marrazkia ebaluatzerakoan, aldagai hauek hartzen dira kontuan:

- Originaltasuna
- Manipulazio atipikoa
- Materialen aldaketa
- Elementuen arteko interakzioa
- Hizkuntz elementuak
- Ereduen urrunketa
- Elementu asmatuak

Testaren puntuazioa haurraren marrazkiaren balorazioa da; 7 aldagai horien puntuazio ponderatuaz osatua dago. Puntuazio orokor hau puntuazio pertzentila bihurtzen da. Honek adierazten du, haur horrek estimulu bisualetatik abiatuz duen *sormen ahalmena*.

2. **Animaliak irudikatu.** (*“Imagina Animales” ipuina;* Xosé Ballesteros / Juan Vidaurre. Kalandraka, 2010)

Berez, hau ez da test bat, ipuin bat baizik. Ipuin hau 12 marrazkiz osatuta dago. Marrazki bakoitzean, egunerokotasuneko objektu arruntak erabiliz (kortxo-kentzekoa, neurtzeko metroa, poto-irekigailua, zapata, krisketa, platanoa, etengailua, kremlera, zoru-garbigailua, labana, kurrika, giltza) eta testu-inguru bisual xume batean kokatuz, haurrak zer animalia irudikatzen duen asmatu behar du.

Animaliak “asmatzerakoan”, objektuaren formek eta atzealdeko estimulu bisual xume horiek haurrari irudikatze ahalmena eskaintzen diote.

Haur guztien erantzun zuzenak estatistikoki tratatu ondoren, laginaren puntuazio pertzentilak lortu dira, kontrol laginaren batez besteko puntuazio pertzentila lortuz.

3. Ipuinaren kontaketa irudikatu

Froga honetan, haur bakoitzari boz gora ipuin bat kontatu zaio: inongo euskarri bisualik erabili gabe. Ipuinaren kontaketa amaitu ondoren, orri zuri batean, hurrei “ipaina marrazteko” eskatu zaie, pertsonaiak eta egoerak ahal zuten bezain ondo irudikatuz.

Haur guztiei ipuin bera kontatu zaie. Istorioak 3 minutuko iraupena eta ipuin klasikoaren egitura du; pertsonaia fantastikoak ditu - iratxo bat eta herensuge bat -.

Haurren marrazkia baloratzekoan, aldagai hauek hartu dira kontuan:

- Zenbat pertsonaia irudikatu ditu
- Pertsonaien zehaztapena (ezaugarriak, elementuak, ...)
- Pertsonaien arteko interakzioa
- Marrazkiak kontaketa-erakiko duen egokitze maila

Froga honen puntuazioa, hau da, haurren marrazkiaren balorazioa, 4 aldagai horien puntuazio ponderatuaz osatua dago. Haur guztien puntuazio zuzenak estatistikoki tratatu dira, puntuazio pertzentilak eta kontrol laginaren batz besteko puntuazio pertzentila lortuz.


6.2. Test eta frogen emaitzak

Kontrol lagina osatzen duten 32 haurren aipatutako hiru test/frogak zuzendu eta estatistikoki tratatuak izan dira.

Haur Sormenaren Testaren (TCI) kasuan, 5/6 urteko haurren testaren baremoak kontuan hartuz, haurren puntuazio zuzenak pertzentiletara pasa dira. Ondoren, laginaren batz besteko puntuazio pertzentila lortu da.

Aldiz, *Animaliak irudikatu* eta *Ipuinaren kontaketa irudikatu* frogetan, haur bakoitzaren puntuazio zuzena lortu da, lehen deskribatu diren aldagai eta irizpideak kontutan hartuz. Ondoren estatistikoki tratatu dira, taldearen puntuazio pertzentilak lortzeko. Azkenik, laginaren batz besteko puntuazio pertzentila lortu da.

Emaitzak, ondorengo grafikoan azaltzen dira:



1go Grafikoa: Irudikatzeko ahalmenaren frogen eta testaren emaitzak (Puntuazio pertzentilak)

7. ARRETA MANTENTZEKO AHALMENA

7.1. Testen deskribapena

Haurren arreta mantentzeko ahalmena ebaluatzeko, 2 test erabili dira:

1. Arreta bisualaren Magallanes Eskala. (*EMAV1. Escala Magallanes de Atención Visual*)

Test honen bidez, estimulu bisualei arreta ardazteko, mantentzeko, kodifikatzeko eta egonkortzeko ahalmena baloratzen da -kuantitatibo eta kualitatiboki-, denbora tarte zehatz batez (6 minutuz) eta haurra eginkizun motor xume bat egiten den ari den bitartean.

Froga honetan, bi puntuazio lortzen dira:

- **Arreta iraunkorra;** Estimulu bisualak denbora tarte zehatz batez ardazteko eta kodifikatzeko ahalmena; hau da, kuantitatiboki arretaz edo adi egoteko ahalmena.
- **Arretaren kalitatea;** Estimulu bisualak ardazterakoan eta kodifikatzerakoan, haurrak azaltzen duen eraginkortasuna.

2. Entzumen-oroimena eta arreta. (*Digitos –WISC IV-. Atención y memoria auditiva*)

Test honek, epe motzeko entzumen-oroimena eta entzumenezko segida bat jarraitzeko ahalmenak neurtzen ditu bereziki; azken finean, entzumen-arreta eta kontzentrazioa.

Haurrak bi eginkizun bete behar ditu:

Lehenengoan, haurrak errepikatu behar du aurretik esan zaion digitu segida bat.

Bigarrean, haurrari digituen segida alderantziz errepikatzeko eskatzen zaio, azkenekoetatik lehenengoetara.


Bi eginkizun hauetan, segida bi digiturekin hasten da, eta digitu bat gehiago eransten zaio, haurrak bi akats egiten dituen arte.

7.2. Testen emaitzak

Bi test hauetan haurren puntuazio zuzena pertzentil bihurtzen da, test bakoitzaren 5/6 urteko adinari dagokion baremoaren arabera. Ondoren, test bakoitzean, kontrol laginaren batz besteko puntuazio pertzentila lortu da.

Emaitzak, ondorengo grafikoan azaltzen dira:

ARRETA MANTENTZEKO AHALMENA



2. Grafikoa: Arreta mantentzeko ahalmenaren testen emaitzak (Puntuazio pertzentilak).

8. EMAITZEN INTERPRETAZIOA

Frogen eta testen emaitzak aztertu ondoren, ondorio hauek atera ditzakegu:

8.1. Irudikatzeko ahalmenari dagokionez:

Orokorrean, kontrol lagina osatzen duten haurren Irudikatzeko ahalmen orokorra, **50koa** da, hiru test/frogen puntuazio pertzentilen batz bestekoaren arabera. Datu honek, lagina, justu, erdi mailan kokatzen dela esan nahi du.

Irudikatzeko ahalmen orokorra zehazterakoan, zera aipa dezakegu:

-Lagin honek estimulu bisualetatik abiatuta duen **sortzeko ahalmena**, neurrizko maila batean kokatzen da (**PZ=39**). Puntuazio honek adierazten du ahalmen honetan haur talde hau ez dela bereziki nabarmentzen (sormen prozesuan, proposamen ezberdinak egitean edo originaltasun aldetik).

-Estimulu bisualetatik eta ahozko kontakizunetatik abiatuta duen **irudikatzeko ahalmenari dagokionez**, hau da, *irudi mentalak* sortzeko ahalmenari dagokienez, lagina erdi mailan, maila moderatuan, kokatzen da baita ere: **PZ=58** eta **PZ=53**.

8.2. Arreta mantentzeko ahalmenari dagokionez:

Kontrol laginaren arreta ahalmen orokorra (entzumen-arretaren eta arreta bisualaren puntuazio pertzentilen batz bestekoaren arabera) **34koa** da. Hau da, erdi mailan kokatzen den arren, neurrizko mailan baita ere.

Esanguratsua den datua honakoa da: entzumen-arretaren ahalmenaren eta arreta bisualaren ahalmenaren arteko aldea. Orokorrean, kontrol laginaren arreta bisuala, **PZ=39koa** da. Aldiz, entzumen- arreta, **PZ=25koa**, erdi-beheko mailan kokatzen delarik. Beraz, *14 puntuko aldea dago arreta bisualaren ahalmenaren eta entzumen-arreta ahalmenaren artean.*

9. IKERKETA KONPARATIBOA

Txosten honetan, kontrol taldeari egindako ebaluazio kualitatiboaren emaitzak aurkeztu dira. 2017an zehar, BM modu sistematikoan aplikatu duen ikastetxe bateko haur talde baten ebaluazio kualitatiboaren emaitzak izango ditugu. Azken honi kontrol laginari aplikatu zaizkion aldagai, froga, test eta metodologia berdinak aplikatuko zaizkio. Ondorioz, lortuko diren emaitzekin, bi ebaluazioen arteko konparazioa egingo dugu, ikusteko BMren baitan eskolan eskaintzen den egitarauak ze emaitza lortzen dituen haurren arreta mantentzeko zein irudikatzeko ahalmenaren garapenaren gainean. Alegia, haur literatura lantzeak haurren introspektzioa areagotzen ote duen jakingo dugu 2016-2017. ikasturtearen bukaeran egingo dugun ebaluazio kualitatibo honekin.

Galtzagorri Elkartea, 2016ko abendua